


TERESA LISIEUXKOAREN  
EUSKARAZKO ARGITALPEN BERRIEN  
AURKEZPENA BAIONAN

Aurtengo otsailaren 3an *aurkezpen* berezi bat egin zen Baionan. Teresa Lisieuxkoaren heriotzaren lehenengo mendeurrena zela eta, euskal talde batek hiru liburu interesgarri argitaratu ditu... Eta honen aurkezpena izan zen Baionan, batez ere liburu bat zen aipatzekoa: Teresaren idazlan guztien itzulpena, frantsesetik egin, 1224 orrialdeko liburu ederra.

Ekintza kultural hau Udal bibliotekan izan zen, E.Ducéré aretoan... Han batu ziren euskaltzale eta euskal kulturako gizon eta emakumeak, eta komunikabideetako kazetariak, prentsa, irratia eta Euskal Telebistakoak...

Goizeko 11etan zegoen ordua jarria, eta ordu berean hasi ginen: mahaiburu Jean Harsichelhar, Euskaltzaindiko lehendakaria, Camino jauna,



Elizbarrutiko Bikario generala, Luis Arostegi, Karmeldarren probintziala zirela eta ezker-eskuinetan Luis Baraiazarra eta Julen Urkiza zituztelarik.

Eta Pierre Charriton izan zen aurkezlea, hain egoki sarrerak egin, euskarazko itzalditxoak frantsesezko itzulpen laburrez jantziz, leun eta gozo ekintza osoa eraman zuena.

Lehenengo **Idazlan guztiak** liburu nagusia izan zen aztergai: **Julen Urkizak** egin zuen liburu handi honen historia:

“a) **Nor da Teresa**

— *Gaur egun Teresa ezagutua eta maitatua da munduan.*

Agerikoa da Teresa mende honetan ezagutua eta maitatua izan dela, eta askorentzat baita beren bizitza eta arimen gidari pozgarria ere.

- a) Bai, santu batzuek ere Teresa biziki maitatu dute eta berari jarraitu diote.
- b) Mende honetako Aita Santuek, Benedikto XV.etik hasita oraingo Joan Paulo II.era arte.
- c) Hainbat idazle eta intelektual daude hura maitatzen eta miresten dutenen artean, baita hainbat artista, politikoko, kirolari etab ere.
- d) Adin eta gizarteko maila guztietako pertsonak... Batez ere eguneroko ekintzan eta elkarrekiko giza harremanetan Jainkoaganako bide samurra bilatzen duten hainbat pertsona xume.
- g) Eta nola ez misio lanetan ari diren pertsonak, Elizaren bihotzean, maitasunean, otoitzean sinisten dutenak....

— *Zergatik bolako arrakasta?*

Arrakasta honen arrazoiak non aurkitu?

- Alaitasunean bizi izandako bere eguneroko bizitzan?

- Jesusengan agertzen duen liluratasunean eta maitasun bizian?

- Barruko baliotasunean, hau da, isiltasunean bizi izandako maitasunean?
- Hain erraz ulertzekoa den bere doktrinan eta bizitzan?
- Bere irekitasun eta freskotasunean, hain esanguratsu ager-  
tzen den bere irribarrean?

— Nor da Teresa:

a. *Bizitzako da-  
tuak... labur-labur.*

Urtarrilaren 2an Alençon-en jaio zen. Hiru urte terdi zituela ama hil zitzaion; eta familia Lisieux-ra joan zen bizitzera “Buissonnets” deritzon etxera. Hamabost urterekin Lisieux-ko Karmelen sartu zen, eta bertan 24 urterekin hil. — Urtebete geroago haren *Autobiografia* argitaratu zen, eta arrakasta



ikaragarria izan zuen. 1956rarte 40 argitalpen ezagutu zituen, beste hizkuntza askotara egindako itzulpenak kontatu gabe. Pio XI.ak Teresa Santu aitortzen du 1925ean eta bi urte geroago munduko misio guztien zaindari izendatzen du, Xabierko Frantzisko santuaren maila berberean.

b. *Haren haurtzaroa eta gaztaroa, familiako maitasunez gozatua.*

Haurtzaroan eta gaztaroan familian maitasunez inguratuta bizi izan zen, aita samurrarekin eta hiru ahizpekin... Etxeko, hau da, aitaren samurtasunak bere bizitza izpiritualetan ere eragina izan-

go du. Aitarean aurrean, baita Jaikoaren aurrean ere, maitasuna somatuko du bakarrik eta ez beldurrik, konfiantza eta bihotz-zabaltasuna. Teresak berak esango du: 'Jainko onak maitasunez inguratu nau'. Edo "guraso berdingabeenak izateko zoriona dut"...

*c. Maitasunez bizi.*

Haren bizitza eta mezua hemen dago: maitasunean. Maitasunez bizi, maitasunagatik gizi, maitasuna bizi... Hau da haren-tzat balio nagusia, baita Jesusen Ebanjelioaren muina ere. Bere bizitzaren bukaeran aitortuko du: "Ez dut neure burua Maitasunari eman izateraren damurik... Oih ez, ez naiz damutzen, alderantziz baizik".

*d. Karmelen Elizaren zerbitzuan: "Eliza nire Amaren bibotzean ni Maitasuna izango naiz".*

Teresak esaera honekin agertzen du bere mezua eta bere etorkizuneko eginkizuna. Santuen alkartasunean oinarriturik dago Teresaren mezua, baita San Joan Gurutzekoarena ere: maitasun ekintzak Eliza osoaren onerako garrantzitsuenak dira. Horregatik Teresak Elizan *bihotza* nahi du izan: eliza osoaren *odol beroa*, maitasunaren gozotasuna eskaintzeko; eta batez ere apaizen eta misiolarien alde, bekatarien alde, mundu guztiaren alde otoitz egin.

*b. Nola sortu den liburua hau?*

Teresaren mendeurrena zela eta, solasean ari ginela, elkar berotu genuen eta senak eman zigun *Karmel* aldizkariak zer-txobait egin behar lukeela gure karmeldar gazte eta santa handiaren omenez... Pentsatu genuen *Karmel* aldizkarian zenbaki berezia egitea eta batez ere Teresaren *Idazlan guztiak* frantsetik euskarara itzultzea. Bagenekien lan gaitza zena, baina Teresak merezi zuen eta euskarak ere bai! Bien alde eta bien zerbitzuan uste dogu Elizari eta Euskal Herriari opari eder bat egin diogula horrela.

Arazo nagusia hau zen: nortzuk itzuli Teresaren idazlanak? Uste genuen Teresa ez zela bakarrik Karmeldarrena, ez Elizarena, ezta Frantziarena ere, Eliza eta mundu osoarena baizik. Horregatik denetariko itzultzaileak parte hartzea komeni zen.

Lehenego *Karmel* aldizkariko idazleen artean hasi ginen itzultzaile bila, eta gero bilatze hori Iparraldera ere zabaldu genuen. Liburuaren laugarren orrialdean ikusten dugu nortzuk diren itzultzaile hauek: Karmeldarrak (5) eta apaizak, sekularak gizonezkoak eta emakumeak, ezkondu eta ezkondegabeak, Euskal Herri osokoak, Hegoaldekoak eta Iparraldekoak...

Itzultzekoa zen jatorrizko testua erraz eskuratzekoa zen: 1992an agertu zen frantsesez liburu eder hau:

SAINTE THÉRÈSE DE L'ENFANT-JÉSUS ET DE LA SAINTE-FACE

*Oeuvres Complètes (Textes et Dernières Paroles)*,

Paris, Éd. du Cerf - Desclée de Brouwer, 1992

Liburu honen itzulpen-lanek urte t'erdiko iraupena izan dute, eta hasi ginenetik liburua argitara atera arte ia bi urte. Orain eskerronez zehaztu nahi nuke taldekide bakoitzak egin duena; hauek dira *Itzultzaileak* eta itzultitako testuak:

-Luis Baraiazarra: *Eskutzkribu autobiografikoak* eta *Olerkiak* (63 olerki).

-Ana Urkiza: *Gutunak* (266 gutun) eta dagozkien oharra.

-Pierre Charrion: *Deboziazko solas-antzerkiak* (8 pieza) izeneko atalaren buru izan da, pieza haiei dagozkien sarrera txikiak eta oharren itzulpena egin duelarik. Ondorengo hauek dira atal honetako testuen itzultzaileak: Jean Challet (*Joana Ark-ekoaren misioa*), Angèle Teillier (*Aingeruak Jesusen sebak*), Marie Jeanne Minaberry (*Eguberriko Jainko-Haur tipikoa eskelaria karmelitetan eske*), Jeanne Marie Malharin: *Egiptoratuak*, *Apaltasuna garaile* eta *Stanislas Kostka saindua*.

-Luis Arostegi: *Otoitzak* eta Santaren obra desberdinetarako eginiko sarrerak.

-Patxi Uribarren: *Azken Elkarriketak*, (eta gainera *Aurkezpena* eta *Hitzaurrea*).

-Michel Itzaina: *Bestelako idazkiak*.

-Anjel Lobera: Liburuko ohar gehienak, gorago beren-beregi adierazitakoak izan ezik, eta *Gebigarri* gehienak. Era berean akde tekniko-informatikoa bere gain izan du.

**Bateratzailea:** Luis Baraiazarrak, gorago aipaturiko itzulpen ugarietz gainera, lanaren euskarazko itzulpenen hizkuntza alorra berrikusi du, askoren artean eginiko itzulpenei nolabait teko batasuna ematearren. Alabaina, Iparraldekoek itzulitako testuak, *Deboztzoko solas-antzerkiak* eta *Bestelako idazkiak*, hain dira bereziak bai jostura, bai forma nahiz lexiko aldetik, non ez baitzaie egin, Hegoaldeko irakurleei begira, behar-beharrezkotzat jo diren ukituak baizik. Xabier Kaltzakortak egin ditu Iparraldekoen testu hauen orrazketa eta bateratzeko ukitu txikiak.

**Zuzendariak:** Azkenik, esan beharra dago Andoni Olea eta Julen Urkiza Karmeldarrek izan dutela lanaren zuzendaritza-aradura: lanak ordenatzeaz gainera, biek goitik behera irakurri eta zuzendu dituzte oso-osoan, frantsesezko testuari jarraituz itzulpenen egokitasuna zainduz. Era berean, hainbatetan berregin behar izan dute eranskinen atala, hala nola, *Izenen Aurkibidea*, etab.

Eskerrak eman behar dizkiegu, era berean, zerbaitetan laguntza eman digun Bego Montorio andreari".

\* \* \*

Gero **Luis Baraiazarrak** hartu zuen hitza itzulpenari buruz azalpen batzuk emanez ("*Teresa Lisieux-koaren Idazlan guztien itzulpena euskarara*"), baita euskaraz eta frantsesez argitaratutako Teresaren autobiografiaren liburu politari buruz ere:

“Lisieux-ko Teresaren idazlan guztiak euskarara itzultzea urrats garrantzitsua izan da. Izpiritualitatearen eta euskararen historian egintza gogoangarria, pozgarria. Hainbat lagunek, Hegoaldeko eta Iparraldeko, elkarlanean erdituriko sorkari hau eskuarte harturik, laztandu, haztatu dugu eta eder deritzogu. Itzultzaileok, ezinbestean, bihotza mintzo zaigularik eta sentimenduak gainez egiten digularik, ez gara, agian, egokienak liburuaren balioa, garrantzia hotz-hotzik neurtzeko. Hala ere badakigu jakin, eta hau apaltasunez eta aldi berean pozik eta ozenki diogu, lan arras garrantzitsua dela hau; noizbehinka baizik egiten ez den horietakoa. Gainerako guztia kritikak eta irakurleek esan beharko dute...

Liburuan barna sarturik, itzulpenaz mintzatu behar dugu. Teresa Lisieux-koaren frantsesezko idazlanak euskaraz birpentsatu eta birkreatzea izan dugu xede, baina aldi berean testu originalarekiko zehaztasun eta fideltasuna gordez. Itzulpen on bati ez zaio itzulpena denik antzeman behar, bestera baizik: hizkuntza hartan pentsatua eta bururatua delako ustea sortarazi beharko luke irakurlearengan. Hori izan dugu gogo-



an. Euskara batu txukun eta dotorean, eta beste aldetik irakurleak erraz eta gozo hartzeko erakoan egiten saiatu gara. *Eskuizkribu Autobiografikoak* Teresaren idazlan guztien mui-na izanik, gainerako lanei euskara aldetik batasuna ematera-koan, hori izan dugu eredu. Testu guztiak ukitu dira, behin eta berriro orraztuz, batzuk gehiago, beste batzuk gutxiago. Zenbait hitz, esapide nahiz forma aldatu izanak ez du esan nahi hasierako guztiak oker zeudenik. Hala ere aldatu badira, testuaren batasunaren mesedetan zelakoan egin da, edo esaldi bihurri samarrak, ulergaitzak errazago, gozoago bihurtzearen, edota Euskaltzaindiaren azken urteotako gomendio eta arauak betearaztearren. Bidenabar, itzultzaile bakoitzarena aintzat harturik, zenbait xehetasunetan ukituak eginez, testuak hobetzera jo dugu. Hau egiterakoan, bateratzailearen jorerak, estiloak zerikusi handia du. Urteetako eskarmentuaz lortutako trebetasunak, senak (intuizioak) markatzen digu horrelakoetan bidea; gero, Euskaltzaindiaren gomendio eta arauak daude, esaterako: zenbakiak eta data nola idatzi, *hait*, *arazi* formen idazteko era zuzena, *batzuk* / *batzuek* / *batzuei*... *hau guztia* edo *hau guztiau* eta ez *guzti hau*. *Nire* / *neure* formen bereizketa, azken hau forma indartuetan erabiliz. Bokatioetan, *ene* forma erabili dut, inon agindurik ez badago ere: *Ene ama maitea*, baina gutunen hasieran forma indartua jarri dugu: *Neure abizpatxo maitea*. *Bere* / *haren* formen bereizketa... Dena dela, bateratzeko eta euskara batuan ezartzeko xede horretan ez dugu berdin-berdin jokatu hegoaldekoek eta iparraldekoek itzultitako testuetan. Guk euskara batua bere esanahi zabalean hartzen dugu eta badakigu Hegoaldeko idazleok egiten dugun batuaren eta Iparraldekoek egiten dutenaren artean badagoela alderik, baina bata bestea bezain euskara batu izan daiteke hala ere. Horrela, Iparraldekoek egindako itzulpenak hain gogoko izan genituen, non ez baiginen ausartu eskua sartzen gauza bakanetan baizik, testua lardaskatzeko beldurrez, eta hau Hegoaldeko irakurleentzat ulergarri egitearren.



Azkenez, zertxobait esan nahi nuke liburuaren azken orrialdeetan ezarri dugun hiztegitxoaz. Azken orduan gogora etorri eta egindakoa da, ahal bezain txukunena, hori bai! Irizpide hau izan genuen kontuan: "lan hau euskara-gaietan oso adituak diren multzo txikiaren eskutan soilik ez dela izango sine-tsi nahi dugu. Irakurle-multzo zabalagoa izan dugu gogoan: erlijioso gizonetzko nahiz emakumezkoak, apaizak, kristau soilak, gazteak, adinekoak, edozein ogibidetako euskaldunak. Horientzat guztientzat, bereziki euskaraz irakurtzeko ohitura handirik ez duten irakurleentzat, zenbait hitzen esanahia argitzen dugu hemen, askorentzat lagungarri izango delakoan. 300 hitz inguruko zerrendatxoa da.

1898an haren autobiografia frantsesez "Histoire d'un Ame" izenburuz argitaratu zenez gero, liburua mundu zabalean entzutetsu egin zen, eta izenburu horrexekin hain zuzen ere. Azken hamarkadetan, aipatutako izenburu horrek oraindik irauten badu ere, aldatuz joan da, batez ere 1956-1957az geroztik: **Eskuizkribu autobiografikoak** izena edo baliokidea hartu du hizkuntza guztietan.

Idazki autobiografikoek hiru parte dituzte, haietarikoa bakoitza komunitateko lekaike desberdin hati eskainia: *A* Ama Aines Jesusenari, *B* bere ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari eta *C* Ama Maria Gonzagarenari.

Euskarazko itzulpenaren historia nahiko gorabeheratsua izan da; euskarara itzultzeko eta argitaratzeko hainbat saio egin izan dira. Gerra aurretik eta gerra ondoren. inprimategirako prest-prest izan ziren bi kasutan behintzat... Baina haugatik edo horigatik ez dira argitaratu, artxiboetan baztertuta gelditu direlarik. Santi Onaindiak bere bizitzaren azkenetan egindakoak ikusi zuen argia 1991n. Ondoren, oraingo argitalpen hau etorri da. Teresaren idazlan guztien muina izanik, argitalpen berezi bat egitea erabaki genuen. Argitalpen elebiduna: frantsesez eta euskaraz; haren hizkuntzan eta gurean. Biografia hau testu elebidunez eta irudiz osatua dator. Argitalpen polita izanez gainera,

liburu aproposa gerta liteke hau Hegoaldeko euskaldunentzat frantses hizkuntzaren ezagutza hobetzeko eta Iparraldeko hainbat gazterentzat, agian, euskara hobeki ikasteko”.

\* \* \*

**Ana Urkiza**, andre gazteak, berak itzulitako Teresaren *gutunei* buruz hitzalditxo hau burutu zuen:

“1. *Gutunen lehenengo argitalpena.*

1947ko Teresaren heriotzaren berrogeita hamargarren urteurrenak, hura 1944an Frantziako zaindari izendatzeak, sugar berrria piztu zuten hari buruz. Historialari bat agertzen da orduan, André Combes apaiza, eraspen honen doktrina-garrantzia argitaratu ateratzeko arduraz. Baina ez da doktrinarik bizitzatik kanpo, ez da teologiarik historiatik bereizita.

Combes apaiza ahizpa Jenofa konbentzitzera iritsiko da, pausukako borrokan, Teresaren eskutitz *guztiak* eman diezaizkion, haurtzaroko txartelak ere bai, argitalpen “zehatz eta osoa” egiteko, egitura kronologikoa zainduz. Aurrerapen erabakigarria izango den liburu hau 1948ko irailaren 30an irteneko da inprimategitik, *Arima baten historia* lehenengoz irten zenetik mende erdi geroago doi-doi.

Ez dezagun ahaztu Eskutitzak osotasun baten parte direna. *Arima baten historiarekin* eta *Olerkiekin* osatu behar dira. Orduan, ziur diotsut, dena jartzen da bere lekuan, eta ez dago arima pargabe honen dirdiraz huts egiteko arriskurik”.

2. *Teresa eta honen gutunen hartzaileak.*

Teresaren korrespondentziak 266 eskutitz eta txartel hartzen ditu, hauetarik 227 eskuidatzi gordetzen dira. Hogei urteko alde oza-oza, 1877ko apirilaren 4tik 1897ko abuztuaren 24ra, neskatxo moldakaitz baten lehenengo papera eta bere hil-ohetan Santa batek idatzitako azkenengo gutun erdiragarria.

Baliotsua bai baliotsua izan arren, bilduma honek ez du Teresaren eskutitz-ekintza osoa hartzen. Galdu diren eskutitzak

heren bat direla jo daiteke: Galerarik mingarrienetakoen artean Canadara, aita Pichon-i bidalitako gutxienez berrogeita hamar eskutitz dira, hilerok idazten baitzion.

Famili giro nahiko itxian hezia, "mundutik aldentzea" indartsu markatzen duen Orden erlijioso baten hamabost urtekin sartua, hogeita lau urtekin hila, egunen batez Pio XI.ak "muruaren haur kutuna" deituko dionak, bizi zela harreman-sail nahiko mugatua ezagutu zuen. Haren eskutitzek errealtate hau isladatzen dute. Familiak berak bakarrik %78 hartzen ditu, familia erlijiosoak -haren hiru ahizpa karmeldarrak kenduta-ozta-ozta %10 batzen ditu. Gainerakoak hamabi hartzailereren artean banatzen dira: zazpi elizgizon, hiru lekairne, bi adiskide.

1 -Ana Bihotz Sakratuarena, Ahizpa (1850-1920), Delatroëtte, Jan Batista, kalonjea (1818-1895), Guérin, Joana eta Maria, Luisa Madalena, Maria Jose Gurutzekoa, Martin, Paulina eta Maria, Martin, Paulina, Maria eta Zelina, Pichon, Almir, Aita (1843-1919), Révérony, Moris, apaiza (1836-1891), San Plazido, ahizpa (1845-1909), Simeon, Anaia (1814-1899), Vallé, Maria Aloisia ahizpa (1841-1903);

2.-Guérin, Isidor (1841-1909), Maria Gonzagarena, Ama (1834-1904), Marta Jesusena, ahizpa (1874-1944), Maudelonde, Zelina (Pottier andrea) (1873-1949);

3.-Hugonin, Flavien, apezpikua (1823-1898), Marta Jesusena, ahizpa (1865-1916);

4.-Guérin, Joana (1868-1938) (La Néele andrea):4.

5.-Guérin jaun-andreak: 5.

6.-Roulland, Adolfo, Aita (1870-1934): 6.

8.-Maria San Joserena, ahizpa (1858-1936): 8.

9.-Maria Hirutasunarena, ahizpa: 9.

11.-Bellière. Moris (apaizgaia) (1874-1907): 11.

13.-Martin, Luis (1823-1894): 13.

17.-Martin, Leonia (Teresa Dositea, ahizpa) (1863-1941): 17.

18.-Martin, Maria (Maria Bihotz Sakratuarena, ahizpa) (1860-1940): 18.

21.-Guérin andrea (Zelina Fournet): 21.

- 23.-Guérin, Maria (ahizpa Maria Eukaristiarena) (1870-1905): 23.  
 38.-Martin, Paulina (Aines Jesusena, Ama) (1861-1951): 38.  
 67.-Martin, Zelina (ahizpa Jenofa Santa Teresarena) (1869-1959): 67.

### 3. *Espirituak eramana.*

Eskutitz hauen gorabeherak edonor harritzeko erakoak dira. Hamasei urteko nobiziak, aldi berean, lerro koloreak idatz diezaizkioke Guérin izbari bere santu-egunean zorionak emateko, eta laster Aita Santu Pio X.arentzat miresgarri izango den aholku-eskutitza bidali Maria lehengusinari. Hogeita lau urtekin, gaxorik, osabaren begietan "neskatxo on bat" da oraindik ere, gorra handirik gabeko gutunak idazten dituen; bere nobiziei eta neba izpitualei, oster, berak bakarrik, Espirituak gidatuta aurkitu duen "*konfiantza eta maitasun*" bidea irakasten dihardu.

*Azken Elkarrizketek* osotasuna lortu duen izakiaren bizia, heriotzaren aurrez aurre, erakusten diguten bitartean, Teresaren Gutunek maitasun neurrigabea bilatzen duen biziaren dinamismoa adierazten dute.

"*Erraldoi-lasterketa*" hor gertatzen da, itxaroteak, irrikak, sufrimentuak baztertzen ez dituen ibilbide bikain-bikaina, baina lehenengo eta behin helburua lortzeko itxaropenez beteriko ausardia tinkoa adierazten du: Maitasun errukitsua; Teresak bizitzako aldi guztietan du Haren bizikizuna eta bere inguruan agertu nahi du".

\* \* \*

Eta idazlan guztiak liburuari amaiera emateko **M. Itzainak** hitz egin zuen "Antzerkiak" eta "Bestelako Idazkiak" atalei buruz:

"Iparraldekoen itzulpenak Pierre Charritonen esku jarri ziren. Honek bilatu zituen itzultzaileak *Antzerkiak* eta Teresaren *Bestelako Idazkiak* izeneko testuak itzultzeko..., eta bai aurkitu ere borondate honez prest-prest zeudenak. Lehenago esan dira izenak...



### a. *Antzerkiak*

#### *Karmeloko aisialdiak.*

“Aisialdi” hauek zer diren ongi ulertzeko Teresa Avilakoaz (1515-1582) behar da oroitu. Bere zuhurtzia handiarekin bazekien “Ama” harek zer bizimolde gogorra proposatzen zien bere alabei eta ez zuten nahi “melankonian” eror zitezen.

Karmel-etxe bakoitzak sortzen ditu bere aisialdi ohiturak, eta urteetan zehar asmatu usadio bereziak. Lisieux-ko karmeldegian, gure Teresa-ren denboretan Ama priorearen eguna zen etxeko besta nagusia. Bi egun irauten zuen eta karia hortara nobizioek emanaldi berezia prestatzen zuten. Uztailaren 29, santa Martaren besta, laneko seroren besta eguna zen. Hiru egun Eguberriren ondotik, Enuxenten besta guziz alaia zen: egun bakoitzeko priorea aukeratzen zuten. 1897 an karmeldegian ospatu zen ere Saint-Stanislas-eko Bihotz Sakratuen Ahizpa-ren urrezko jubilaua.

Teresa Martin Karmelean sartu zelarik, besta horien antolatzaille “ofiziala”, haren ahizpa Paulina, Aines Jesusena, hogoita

zazpi urtekoa, zuten. Eta 1888ko ekainaren 21 ean santa Aines-en papera ukaiten du Teresak. 1889 ko abenduaren 25 ean berri, Ama Birjinarena egiten du *"Jesus Haurraren Leben Ametsa"* deitu emanaldian. "Serora guziak barna hunkiak izan ziren eta begi guziak busti ziren", Ama Aines-en ohar baten arabera.

Laster beraz seroragaiak eta nobizioak jakin zuen antzerki mota honen berri eta ekintza horietan berak biziki parte hartu zuen. Ez ziren jolas horiek harentzat abusagailu hutsak, baina esperientzia aberats eta kartsuak geroago haren izkribuetan beren hatza utziko dutenak. Zer karrarekin ez du beraz Joana Ark-ekoaren papera berak ondoko urteetan beteko!

1893 ko otsailaren 20 ean, Aines Jesusena priore hautatua delarik, aisialdien ardura utzi behar du eta prioreordea ez baita lan horietara ekarria, ahizpa Teresari etortzen zaio ospakizunen ardura. Teresa idazle, aurkezle eta jokolari bihurtu zen. Bere eginkizunaren estrenatzeko, *"Joana Arc-ekoaren Misio-nea"*, idazten du 1894eko urtarrilaren 21ean, ospatzen den Ama priorearen bestako.

Zortzietatik sei antzerkietan prosa eta poesia aldizkatzen ditu autoreak eta poesiari musika eratzikitzen dio maizenik, 26 aire ezberdin darabiltzala.

Antzerki mailan aitortu behar da berehala ez dela Teresa ofiziozko antzerkilaria; ez nahi ere. Haren kezka bakarra lagunei atsegin egitea besterik ez da. Baina ez da dudarik bestelako idatziek baino eragin handiagoa izan dutela lagunartean antzerki lan hauek. Bera ere bere olerkietan baino barnago sartzen da lan hauctan eta hor bere nortasunarekin agertzen.

#### b. *Bestelako Idazkiak*

"Bestelako idazkiak" dioen bezala, hemen biltzen dira, mota askotako eta balio ezberdineko idazki zenbait, Teresaren bizi guzian barna, haurtzarotik heriotzeraino doazenak, eta berak Karmelean begiratzen zituenak.

Ez dira jakina argitaratzen ahal Teresaren eskola liburu guztiak. Haren biziaren xehetasunak hunkitzen dituztenak dira hautatu eta urtez urte sailkatu bi sail nagusitan:

1. 1880 - 1888 TARTEAN "BUISSONNETS" ETAN IDATZIAK

- bere haut karnetetan aurkitu dira *hiru erretretako obarrak*.
- *kronologia ohar* zenbait harraren karnetik hartuak.
- eskolako lan zenbait eskolako kahieretarik hartuak...
- Charles Arminjon apezak "*Munduaren akabantza eta Geroko biziaren misterioak*" liburutik 1887eko maiatz ekainetan Teresak kopiatu pasarte batzuk; haren bihotzean barna sartu baitziren.

2. 1888-1897 TARTEAN KARMELEAN IDATZIAK

- *Irudi biblikoak*..
- *Ama Jenofa Santa Teresarenaz oroitzapenak*..
- *idazki berezi zenbait* Teresak begiratzten zituenak bere gelako izkributegian edo bere eskuliburuetan...
- *Bibliatik ateratako atal hautatuak*

Idazki horiek, diren bezala adierazten digute zer ziren Teresaren arrangura handiak bere bizi guztian barna. Merezki zuten beraz argitaratzea".

\* \* \*

Gero beste liburuaren txanda izan zen, *Karmel* aldizkari bezela eta liburu bezala (Karmel-Sorta) egin den argitalpena. **Luis Arostegi** izan zan argitalpen hau azaldu zuena ("Teresari omenaldia *Karmel* aldizkarian eta *Karmel-Sortan*");

"Aurreko urteetan ere *Karmel* aldizkariak zenbaki bereziak atera izan ditu: Joan Gurutzekoa eta Loiolako Inazioaren mendeurrenean (1991), eta 1995 Gabirel Jauregiren, eskarazko *Pisia* eta *Kimia* liburuen sortzailearen omenez. Eta orain *Teresa Lisieuxkoaren* mendeurrenean.

Historia luzeko aldizkaria dugu *Karmel*, Lehenago *Karmengo Argia*. Azken urteetan Karmel aldizkariaren inguruan Karmel-Sorta ere sortu izan da. Eta orain Teresari buruzko idazlanak bietan argitaratzen dira *Karmel* aldizkarian eta *Karmel-Sortan*..

- Teresaren idazlanen itzulpenaren hasierak... argitaratu ziren... eta artikulua laburrak ugari *Karmengo Argian* (baita *Karmelen* ere) agertu dira: Nahikoa da begirada bat "Teresa euskarazko argitalpen eta eskuizkribuetan" artikulura botatzera hau egiaztatzeko...

Baina orain aurkezten ditugun liburu eta aldizkarian idazlan luzeagoak eta sakonagoak agertzen dira, ikuspegi ezberdinetatik eginak. Aldizkariko zenbaki honetan egiten da orain euskaraz sekula egin denik eta ahaleginik handiena... Estudio desberdinak: lan historiko eta doktrinalak, bere mezu eta bere fisikoa, euskarari loturiko gaiak... etab.; baina esan beharra dago gure aurrekoek, Teresari buruz apostolutza aldetik eta debozio aldetik... guk baino lan handiagoa egin zutela, adibidez orain dela 30-60 urte...

#### Argitalpen honetan ***Teresa bera agertzen da:***

Teresa bere garaiak, Teresa bere bizitzan eta mezuan, Teresaren izaera izpirituz eta gorputzez (batez ere haren aurpegiaren argazki ugariaren bidez egiten den estudioa),

Teresa karmeldar gazte eta santua agertzen zaigu hor, baita olerkari eta kantari ere: berak esan ohi zuen bezala "Jaunaren errukiak kantatzen"; eta guztia osatzeko, beste olerkari eta musikari batzuen lanak agertzen dira Teresa olerkiz eta musikaz goratzen...

Lau multzotan banatu ditugu gaiak: 1. Teresa Lisieuxkoaren garaia. 2. Teresa bere idazlanetan: bizitza, mezua eta oihartzuna. 3. Bere pertsonaren eta idazlanen solasaldi batzuk. 4. Teresa Lisieuxkoa eta euskal mundua.


Idazki hauen guztien oinarrian, ia-ia argitalpen honekin batera argitaratu berri diren santaren idazki guztien euskarako ar-



gitarapena dago, horrek euskal kulturarako esan nahi duen guztiarekin. Horrela, santaren idazkietatik jasotako aipamen ugariak, Teresa Lisieux-eko *Idazlan guztiak euskal itzulpen eginberritik bartuak izan dira.*

### **Zenbaki bonen partaideak**

Argitalpen honetan hainbat lagunek hartu dute parte. Guztiei agertu nahi diet nire eskerrona. Gehienak KARMEL aldizkari honetako ohiko lan-kideak dira.



Lehenengo eta behin, eskerrona Teresa Lisieuxekoari buruzko gaietan gaitua den **Andoni Oleari**, bere lankidetzat behar-beharrezkoa izan delako. Hurrengo **Luis Baraiazarrari**, Teresaren idazkien itzulpena egiterakoan ezinbesteko lana egin duelako eta omenaldi-liburu honetan ere hainbateko laguntza eskaini duelako; eta **Patxi Uribarreni**, idazlan bat eginez eta beste hainbatena itzuliz parte hartu duenari. Era berean nire eskerro-na agertu nahi diet honako ikerlanak egin dituzten **Damaso Zuazua**, **Anjel Lobera**, **Patxi Ibarmia** eta **Jesus Iturbe** edota, **Aurre-Apr aiz**, **Iratzeder** edo hilberria dugun **Santi Onaindiak** bezala, olerkiak idatzi dituztenei. Eskerrak, baita ere, Luis Baraiazarrak euskaratutako Teresaren olerki batzuei musika jarri dieten **Gotzon Aulestia** eta **Julian Ansola** jaunei. Eta Azkenez aldizkariaren Zuzendaria den **Julen Urkizari**: berak, idazlan edo artikulu batzuk egiteaz aparte, posible egin baitu *Karmel* aldizkariako zenbaki berezi hau hain aberats agertzea.

Liburuaren aurkezpena egin ondore4n, amaitzeko mahaiburu-ko Haritschelhar eta Camino jaunek, itz egin zuten, halako liburu ederren aurrean euren poza eta harridura erakutsiz.

Hauek izan ziren **J. Camino**, Bikario Generalaren hitzak:

“Egun goizean, MOLERES gure apezpikuari galdegin diot —ohi dugun bezala, euskaraz eman meza sailduaren ondotik— zer nahi zuen erran nezan haren izenean euskaraz itzuliak izan diren Santa Terexaren idazlanen aurpezpen huntan...”



Manatu nau eskerrak bihur ditzadan bere izenean, ez bakarrik liburu eder hori eskainia izan zaiolaketz, baina, oroz gainetik, lan zinez miresgarri bat egina izan delaketz gure sor-mintzairan.

Eskerrak beraz Karmeldar anaieri Baionako Gotzaiaren partez! Zuek gabe ez zen lan hori eginen. Eskerrak ere Iparraldeko euskaltzale langileri; zuen izenen zerrenda irakurtu dut liburuan: Piarres Xarriton, Mixel Itzaina, Jean Callet, Jana Mari Malharin, Angèle Tellerie eta Marie-Jeanne Minaberri. Xabier Diharce beneditar euskaltzaina ere behar da kondatu langile horien artean, bigarren liburuko egina duen lanarengatik.

Zueri esker “mende berrietako” saildu hunen Jainko-espiritua zoin izan den ikas dezakete gure haurride euskaldunek beren ama-hizkuntzan.

“Garai modernoetako saindurik haundiena” dela Terexa Lisieuxkoa errana baitu Pio hamargarrenak, jin zaut gogorat garai moderno huntan ainitz gazte baditugula psikologia doi bat inarrosia edo berdin tormentatua dutenak jan-gabeziarengatik, edo ainitz familia hautsiak direlaketz beren maitasun partez haurrak gabetuz...

Terexak bere ama galdu zuen hiru urte et'erditan, eta osagarri ahulekoa izana da beti. Badakigu ere, 23 urtetan “ilunperik itsuenean” gaindi iragan zela: “jarri naiz bekatorosen mahainean” berak zion bezala...

Gure mende berriak holakoak dira, dena kezka, urratze, eritasun berri, sinesgabekeria; eta ere, ber'denboran, halako goi-egarri bat, izpiritual gose bat; gose bat haatik arras nahasia, alderdi guzietarat doana.


Holako garaian, Terexaren bizia eta Terexaren mezua argigarri zauzkigu. Bere sineste garbia, Jainkoaren alderat zuen amodio sakona hor ditugu etsenplu. Jainkoari osoki fidatuz sendatu zituen bere gogo-bihotzetako eskasak.

Bai, mende berrietako saindu hau izan dadila mende berri hunentzat iguzki!

Eskerrak beraz zueri deneri, Terexaren saindutasun-bide berezia, maitasun-bide berezia, zueri esker euskaldunek ikas baitezakete.

Etchegaray Kardinalak aipatzen du Uztaritzeko komentuan egin zuela Terexak mirakulu bat. Bai “arrosa-lore euria” lur huntarat botako zuela errana zuenak, fagore hortaz doharu zituen Uztaritzeko serorak, eritegiaren xahutzen ari zen batek atxemaiten zituen arrosa-lore zatixka batzu lurrean eta biltzen zituen ziolarik “nork utziak ditu lore hauek leku huntan”? Terexa “dohatsu” aitortzeko kondatua izan zen noski gertakari hori.

Zer erran oraino? Terexaren erlekiak gure diosesa edo elizbarrutian iragan berri direla; eta ainitz jendek, Baionan ala Beloken, goretsi dituztela.



Beila bat ere egin beharra da aurten Lisieuxerat gure diosesako girixtinoekin. Zertako ez, lehen-bai-lehen, beila bat munta Karmeldar Aiten gerizan, Euskal herri guziko, iparralde ala hegoalde?

Bururatzeko huna Etchegaray Kardinalaren hitzat: "Terexa Jesus Haurraren eta Aurpegi Sainduarenaren erakaspen xume eta sakonak euskal arima aberats dezala eta beti emankorrago egin, Eliza guziaren onerako".

**Jean Haritschelbar** Euskaltzainburua mintzatu zen azkenez eta hark esandakoa hitzez hitz ez badugu ere, biziki goraiatu zituen egindako lana eta horretan aritu zirenak. Haren lehen hitzak honela izan ziren gutxi gorabehera: xoraturik nago Santa Terexa Lisieux-koaren idazlan guztien liburu ederra eskuartean hartu dudalarik. Zinez goragarria iruditu zaio Karmeldarren ekimenez Hegoaldeko eta Iparraldeko euskaltzaleek elkar-lanean egintza hau burutu izana.

Euskaltzaindiari ere berea aitortu dio lan honetan, euskaltzain oso bat —Pierre Charriton— eta hiru urgazle —Mixel Itzaina, Patxi Uribarren, Luis Baraiazarra— aritu baitira, beste batzuen artean, itzulpen-lanean. Bestalde, Euskaltzaindiaren

arauak al bait zuzenen bete izanak, eranskin gisa 300 hitzez osaturiko hiztegiñoa ezartzeak eta beste ezaugarri batzuek argitalpen hau goraipagarri ezezik, eredugarri ere egiten dutela adierazi zuen. Lan berezia, balio handikoa, Euskal Herrian aspaldidanik itzuliz doazen klasikoen argitalpenen antzekoa.

Azkenez, berriro ere lan gaitz eta eder honetan aritu direnei zorionak eta eskerrak emanez bukatu zuen euskara hutsezko bere mintzalditxoa.



Benetan aurpezpen ederra, ia ordu betekoa... Eta gero solasaldia beste mahaian, jatetxean, jarraitu genuen...

*J.U.*